

# KANALAK

Ez dugu gure enpresaren denda propiorik izango, dendek dakartzaten gastuak saihesteko. Beste bide batzuen bidez salduko ditugu gure produktuak; **Interneten bidez** (produktu hauek saltzen dituzten web orrialdeetan, Amazon, adibidez) , eta teknologia dendetan (adibidez, MediaMarkt). Gainera, gure **web orrialde**etik ere saldu ditzakegu.

Modu honetan, Espainian eta atzerrian dendak izateak dakartzan gastuak saihestuko ditugu, eta edozein herrialdeetik erosi ahal izango da.

**Denda propiorik ez** dugu izango, hori dela eta, ez dugu izango langilerik dendetan bezeroekin harremanetan jartzeko; hau da, ez da egongo kontaktu zuzenik.

Arazo bat egonez gero, gure **enpresaren zenbakira** deitu ahal izango dute, hau produktuaren **jarraibideetan** egongo da, baita gure **web orrialdean** ere. Erosi osteko zerbitzua ez da egongo denda saltzaileen esku.